



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 9/2019 ebazpena

Recurso 1/2019 errekurtsua

SERVICIOS SOCIALES AITA MENNI SL enpresak kontratazio alorreko errekurtsu berezia aurkeztu du, KABIA foru erakunde autonomoaren Kontratazio Mahaiak 2019ko martxoaren 26an hartutako erabakiaren kontra, erabaki horren bidez ebatzi baitzen haren eskaintza ez onartzea Villabonako adinekoen egoitza zentroan egoitza zerbitzuak eta eguneko egonaldiak kontratatzeko adjudikazio prozeduran (espediente zk.: 2GBE0205/2019). Hori horrela, Kontratazio Alorreko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, ondorengo erabakia hartu du, aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por SERVICIOS SOCIALES AITA MENNI SL contra el acuerdo de la Mesa de Contratación del organismo autónomo foral KABIA de fecha 26 de marzo de 2019, por el que se resuelve no admitir su oferta en el procedimiento de adjudicación para la contratación de los servicios de residencia y estancias diurnas en el centro residencial para personas mayores de Villabona (expediente nº 2GBE0205/2019), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2019ko apirilaren 17an Auzitegi honen erregistroan aurkeztutako idatziaren bidez, SERVICIOS SOCIALES AITA MENNI SL enpresak (aurrerantzean AITA MENNI) kontratazio alorreko errekurtsu berezia aurkeztu zuen ebazpen honen goiburuan agertzen den erabakiaren aurka, eta 1/2019 erregistro zenbakia jaso zuen.

BIGARRENA.- Auzitegi honek zuzentzeko errekerimendua egin ondoren, AITA MENNIK, apirilaren 25ean, aurkeztu zuen errekurtsuaren sinatzailearen ordezkariak egiaztatzeko notario-agiria.

HIRUGARRENA.- Apirilaren 26an, Auzitegiak ofizio bat bidali zion KABIA foru erakunde autonomoari, errekurtsuaren kopia igorri, eta, bide batez, espedientea eta zegokion txostena

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el 17 de abril de 2019, SERVICIOS SOCIALES AITA MENNI SL (en adelante AITA MENNI) interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo referido en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 1/2019.

SEGUNDO.- Previo requerimiento de subsanación realizado al efecto por este Tribunal, el 25 de abril AITA MENNI presentó el documento notarial acreditativo de la representación de la persona firmante del recurso.

TERCERO.- El 26 de abril el Tribunal dirigió oficio al organismo autónomo foral KABIA, remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe.



erreklamatur.

LAUGARRENA.- Maiatzaren 21ean, Auzitegiak jaso zituen kontratazioaren espedientea eta KABIAREN txostena.

BOSGARRENA.- Erakunde autonomoak bidalitako agiriak ikusita, maiatzaren 24an, Auzitegiak berriz ere espediente osoa eskatu zion, ordenatuta eta dokumentuen aurkibidearekin, baita lizitazioan parte hartu zutenen zerrenda ere, errekurtsoaren berri eman ahal izateko. Dokumentazio hori maiatzaren 31n jaso zen.

SEIGARRENA.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 56.3 artikuluan xedatutakoa betez, errekurtsoaren berri eman zitzaion beste entitate lizitatuileari, ARQUISOCIAL SLri, eta bost eguneko epea ezarri zitzaion alegazioak aurkeztu ahal izateko, baina ez zuen ezer aurkeztu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Errekurtsoaren onargarritasuna

LEHENA.- Errekurtsoa aurkeztu da 5.342.162,40 euroko balio zenbatetsia duen zerbitzu kontratu baten adjudikazio prozeduran aurkeztutako eskaintza bat baztertzeko erabakiaren aurka.

Beraz, erabaki horren aurka aurkez daiteke kontratazio alorreko errekurtso berezia, horrela xedatutako baitago Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 44. artikuluan 1.a) eta 2.b) apartatuetan; eta auzitegi honi dagokio errekurtso hori ebaztea, 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak, hala esleitu baitio 2.1 artikuluan.

BIGARRENA.- Errekurtsoa jarri du Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan ezartzen duen legitimazio baldintza duen pertsonak, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 50.1.c) artikulua aurreikusten duen

CUARTO.- El día 21 de mayo el Tribunal recibió el expediente de contratación y el informe de KABIA.

QUINTO.- A la vista de la documentación remitida por el organismo autónomo, el 24 de mayo el Tribunal le requirió nuevamente el expediente completo, ordenado y con el correspondiente índice de documentos, así como la relación de los participantes en la licitación a fin de poder darles traslado del recurso; todo lo cual se recibió el 31 de mayo.

SEXTO.- En cumplimiento del artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP) se dio traslado del recurso a la otra entidad licitadora, ARQUISOCIAL S.L., concediéndole un plazo de cinco días para formular alegaciones, sin que haya formulado ninguna.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- El recurso se interpone contra el acuerdo de exclusión de una oferta presentada en el procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado alcanza la cifra de 5.342.162,40 euros.

Por lo tanto, el citado acuerdo es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponer los apartados 1.a) y 2.b) del artículo 44 LCSP, y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 48 LCSP, y dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP.



hamabost egun balioduneko epearen barruan.

Auziaren mamia

HIRUGARRENA.- KABIA foru erakunde autonomoaren Gobernu Batzordeak, 2018ko uztailaren 27ko erabakiaren bidez, onartu zuen Villabonako adinekoen egoitza zentroko egoitza zerbitzuak eta eguneko egonaldiak kontratatzeko espedientea, administrazio klausula partikularren agiria (AKPA) eta preskripzio teknikoaren agiria (PTA) ere. Halaber, kontratua adjudikatzeko prozedura irekia hastea erabaki zuen.

Eskaintzak aurkezteko epean bi lizitatzailereren proposamenak jaso ziren: ARQUISOCIAL SL eta SERVICIOS SOCIALES AITA MENNI SL.

2019ko martxoaren 26an, Kontratazio Mahaiak BAT zk. gutun-azala edo fitxategia ireki eta bertan zeuden dokumentuak kalifikatu zituen, horien artean Kontratazio Agiri Europar Bakarra (KAEB).

Kontratazio Mahaiak erabaki zuen ez onartzea errekurtsojartzaileak aurkeztutako eskaintza, KAEB agirian sartu baitzuen solaskide teknikoaren esperientziari buruzko informazioa, HIRU zk. fitxategian sartu behar zena, SPKLko 139. eta 157. artikuluek eta AKPAko 18.etik 21.era bitarteko klausulek xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- AITA MENNIk errekurtso hau aurkeztu du erabaki horren aurka, bere ustez bete egin behar delako KAEB agirian agertzen den “Ikasketen tituluak eta profesionalak” atala, baldintza agiriek ez baitute horren inguruko salbuespenik jasotzen; solaskidearen esperientziaren balorazioa eta horren egiaztapena HIRU gutun-azalean bakarrik jasotzen delako eta ez KAEB agirian; eta bi gutun-azalak ireki behar direlako esperientzia hori baloratzeko.

Horrez gain, eranstean du apartatu hori betetzeko

Fondo del asunto

TERCERO.- Por Acuerdo de 27 de julio de 2018 la Junta de Gobierno del organismo autónomo foral KABIA aprobó el expediente de contratación de los servicios de residencia y estancias diurnas en el centro residencial para personas mayores de Villabona, junto con los pliegos de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y de prescripciones técnicas (PPT), y dispuso la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato.

En el plazo de presentación de ofertas se recibieron proposiciones de dos licitadores: ARQUISOCIAL, SL y SERVICIOS SOCIALES AITA MENNI S.L.

En fecha 26 de marzo de 2019 se procedió por la Mesa de Contratación a la apertura del Sobre o Archivo nº UNO y a la calificación de los documentos contenidos en el mismo, entre ellos el Documento Europeo Único de Contratación (DEUC).

La Mesa acordó no admitir la oferta presentada por la recurrente por haber introducido en el DEUC información relativa a la experiencia de la persona interlocutora técnica que debía incluirse en el Archivo nº TRES, todo ello de conformidad con los artículos 139 y 157 LCSP y las cláusulas 18 a 21 del PCAP.

CUARTO.- Contra dicho acuerdo AITA MENNI interpone el presente recurso porque entiende que el apartado de “Títulos de estudios y profesionales” incluido en el DEUC debe ser cumplimentado, ya que los pliegos no recogen ninguna excepción al respecto; que la valoración de la experiencia de la persona interlocutora así como su acreditación se recoge exclusivamente en el Sobre TRES y no en el DEUC; y que es necesario abrir ambos sobres para valorar esa experiencia.

Añade que para completar este apartado ha



aurreko beste lizitazio batzuetako irizpide bera erabili duela, eta aurreko lizitazio horietako kontratazio mahaiek ez ziotela inolako jakinarazpenik egin hori desegokia zela adierazteko.

Horrenbestez, uste du ez dela baztertu behar aurkeztutako proposamena, ez baitu urratzen baldintza agirien klausularik; eta akatsen bat antzemango balitz, zuzentzeko modukoa izango litzatekeela, beraz subsidiarioki eskatzen du zuzentzeko aukera emateko, horrela egin ezean, eta eskaintza baztertuz gero, urratu egingo bailirateke kontratazio publikoaren oinarri diren konkurrentziako eta proportzionaltasuneko printzipioak.

Bere asmoa oinarritzeko, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren 2018ko otsailaren 2ko ebazpena aurkezten du, non kontratazio prozedura batean enpresa lizitatuaren aldeko ebazpena ematen baita 1 zk. eta 3 zk. gutun-azalen arteko nahasketa egoera batean, bere ustez oraingo honen antzekoa den egoera batean.

BOSGARRENA.- Entitate kontratatzaileak proposatzen du errekurtsoa ezestea, uste duelako, batetik, solaskide teknikoaren lan esperientziaren informazioa BAT zk. fitxategian emateak eta ez HIRU zk. fitxategian urratu egiten duela proposamenen izaera sekretua, SPKLren 139. eta 157. artikuluetan aurreikusitakoa; bestetik, kontratazio mahaiak kalifikatu behar duen dokumentazioa proposamena jasoko duen gutun-azal edo fitxategi elektronikoa ez den beste batean aurkeztu behar dutela lizitatuak; eta azkenik, fitxategi desberdin batean informazioa gehitzeak erraztu egiten duela lizitatuak lor dezakeen puntuazioaren kalkulua, eta ondorioz, balio judizioaren bidez egin behar zen balorazioa kutsatuta geldituko litzatekeela informazioa jaso delako formulak aplikatuz eman beharreko balorazioa egin aurretik.

SEIGARRENA.- AKPAren ezaugarrien taulako 15.3 apartatuan aurreikusitakoaren arabera, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzeko

seguido el mismo criterio que en otras licitaciones anteriores, sin que se hubiera recibido por parte de la mesa de contratación de estas licitaciones ninguna notificación de inadecuación al respecto.

Por todo ello considera que no debe excluirse la proposición presentada puesto que no vulnera ninguna cláusula de los pliegos, y que en el caso de apreciarse la existencia de algún defecto, este sería subsanable, por lo que subsidiariamente solicita que se acceda a dicha subsanación ya que, de lo contrario, la no admisión de su oferta vulneraría los principios de concurrencia y proporcionalidad en los que se asienta la contratación pública.

En apoyo de su pretensión aporta una resolución del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales de fecha 2 de febrero de 2018 donde se resuelve a favor de la empresa licitadora en una situación de exclusión en un procedimiento de contratación por confusión entre el Sobre nº 1 y el Sobre nº 3, que entiende que es similar.

QUINTO.- La entidad contratante propone la desestimación del recurso por considerar, en síntesis, que el hecho de informar sobre la experiencia laboral de la persona interlocutora técnica en el Archivo nº UNO y no en el nº TRES vulnera el carácter secreto de las proposiciones previsto en los artículos 139 y 157 LCSP; que la documentación que debe ser calificada por la mesa de contratación debe presentarse por los licitadores en sobre o archivo electrónico distinto del que contenga la proposición; y que el hecho de añadir información en un archivo distinto facilita calcular la puntuación que pudiera conseguir la licitadora; y consecuentemente, la valoración que debía efectuarse mediante juicio de valor quedaría contaminada por haber transmitido información antes de efectuar la valoración mediante la aplicación de fórmulas.

SEXTO.- Conforme a lo previsto en el apartado 15.3 del cuadro de características del PCAP, uno de los medios para acreditar la solvencia técnica o



modu bat da “Solaskide tekniko bat izendatzea. Pertsona horrek gutxienez lizentziadun edo unibertsitateko graduatu titulua izan beharko du eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailako euskara gaitasuna egiaztatuta beharko du”.

Kontratuaren adjudikazio irizpideak AKPAren ezaugarrien taulako 19. apartatuan zehaztuta daude, eta horien artean bereizten dira balio judizio bidez balioetsi beharreko irizpideak eta formulak aplikatuz balioetsi beharreko irizpideak, eta kasu honetan 48 puntu esleitzen zaizkio prezioari eta 3 puntu solaskide teknikoaren esperientziari “adineko pertsonen edo/eta desgaitasuna duten pertsonen arretara zuzendutako zerbitzu edo zentroetan koordinazio lanetan edo zentro horien arduradun funtzioak betetzen izandako esperientzia: 0,025 puntu hilabete bakoitzeko”.

Proposamenen aurkezpenari dagokionez, AKPAren 18.1 klausulan zehazten da proposamenak ondorengo klausuletan adierazten diren gutun-azal edo fitxategi elektronikoetan aurkeztuko direla. 19.1 klausulan zehazten da BAT zk. gutun-azalaren edo fitxategi elektronikoaren edukia: “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”; eta gutun-azal horretan sartu behar zen Kontratazio Agiri Europar Bakarra (KAEB). Agiri horretan lizitatzailleak adierazten du betetzen dituela SPKLren 140. artikuluan zerrendatutako alde zuzeneko beharkizunak. Horretarako, AKPAren II. eranskin gisa jasotzen dira KAEB agiria betetzeko jarraibideak, baita lizitatzailleak inprimaki normalizatua eskuratu ahal izateko helbide elektronikoa ere.

Bestalde, AKPAren 21. klausularen arabera, formulak aplikatuz ebaluatu beharreko dokumentazioa HIRU zk. gutun-azalean edo fitxategi elektronikoan sartu behar zen, eta proposamenak IX. eranskinean jasotako ereduari jarraituz egin behar ziren. Eredu horretan argi eta garbi bereizten eta azaltzen da nola zehaztu behar zen eskaintza ekonomikoa eta solaskide teknikoaren esperientzia. Azken puntu horri dagokionez, “lizitatzailleak, izendatutako solaskide teknikoaren esperientzia adierazi beharko dute ondoko taulan, hilabeteetan adierazia. Aipatutako esperientzia egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztu beharko dituzte

profesional consiste en la “Indicación de un/a interlocutor/a técnico/a. La titulación mínima de esta persona será de Licenciatura o Grado universitario y deberá acreditar un nivel de Euskara C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas”.

Los criterios de adjudicación del contrato están definidos en el apartado 19 del cuadro de características del PCAP, donde se distinguen los criterios a valorar mediante juicio de valor y los criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas y en este caso se atribuyen 48 puntos al precio y 3 a la experiencia de la persona interlocutora técnica “en labores de coordinación en centros o servicios destinados a atender a personas mayores y/o personas con discapacidad o en el desempeño de funciones de responsable de dichos centros: 0,025 puntos por cada mes completo”.

En cuanto a la presentación de las proposiciones, se indica en la cláusula 18.1 del PCAP que éstas se presentarán en los sobres o archivos electrónicos que se indican en las cláusulas siguientes. Y en la cláusula 19.1 se concreta el contenido del Sobre o Archivo electrónico nº UNO: “DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA”, en el cual debía incluirse el Documento Europeo Único de Contratación (DEUC). En este documento el licitador pone de manifiesto que cumple con los requisitos previos enumerados en el artículo 140 LCSP. A tal efecto se incorporan al PCAP como Anexo II las instrucciones para la cumplimentación del DEUC, así como la dirección electrónica en la que se encuentra a disposición de los licitadores el formulario normalizado.

Por otro lado, de acuerdo con la cláusula 21 del PCAP la documentación evaluable mediante la aplicación de fórmulas se debía incluir en el Sobre o Archivo electrónico nº TRES, debiendo ajustarse las proposiciones al modelo que figura en el Anexo IX. En este modelo se diferencia y se concreta con claridad cómo debía especificarse la oferta económica y la experiencia de la persona interlocutora técnica. Con respecto a esto último “las licitadoras deberán indicar en la siguiente tabla la experiencia de la persona interlocutora designada, en número de meses. Asimismo, deberán adjuntar los documentos acreditativos de dicha experiencia (contratos,



eranskin honekin batera (kontratuak, bizitza laborala eta betetako funtzioen gainean enpresa kontratatzaileak emandako dokumentuak)”.

vida laboral y documentos emitidos por las empresas empleadoras referidos a las funciones desempeñadas)”.

ZAZPIGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 1. artikulua dio bere xedeetako bat dela bermatzea sektore publikoko kontratazioetan betetzen direla lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioa, eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa. Zentzu berean, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 132. artikulua dio kontratazio organoek lizitatzailerik eta hautagaierik tratamendu berdina eta ez baztertzailerik emango dietela, eta haien jardura gardentasunaren printzipioari eta proportzionaltasun printzipioari egokituko zaiela.

SÉPTIMO.- El artículo 1 LCSP establece como uno de sus fines el de garantizar que la contratación del sector público se ajuste a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos, y no discriminación e igualdad de trato entre los licitadores. En el mismo sentido, el artículo 132 LCSP dispone que los órganos de contratación darán a los licitadores y candidatos un tratamiento igualitario y no discriminatorio y ajustarán su actuación a los principios de transparencia y proporcionalidad.

Tratamendu berdintasunaren printzipioak esan nahi du lizitatzailerik guztiak berdintasun egoeran egon behar dutela bai eskaintzak aurkezteko unean bai erakunde adjudikatzaileak eskaintza horiek balioesteko unean.

Este principio de igualdad de trato implica que todos los licitadores deben hallarse en pie de igualdad tanto en el momento de presentar sus ofertas como al ser valoradas éstas por la entidad adjudicadora.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, lizitatzailerik tratamendu berdintasunaren printzipioak eskatzen du proposamen guztiak AKPAko preskripzioen arabera izatea, lizitatzailerik desberdinek aurkeztutako proposamenen arteko konparazio objektiboa bermatzearen.

Según la jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea, el principio de igualdad de trato de los licitadores exige que todas las proposiciones sean conformes a las prescripciones del pliego de cláusulas administrativas particulares, con el fin de garantizar una comparación objetiva entre las proposiciones presentadas por los diferentes licitadores.

Horrela, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuarenak, 139.1 artikuluan dioenez, *“Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintza-agirien eta dokumentazioaren arabera izan behar du, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe...”*.


En este sentido establece el artículo 139.1 LCSP que *“las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna”*.

Horrez gain, artikulua bereko 2. apartatuan honako hau xedatzen da: *“eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da proposamenak ireki arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko”*, eta hori bera jasotzen du AKPAko 16.4 klausulak.

Además, el apartado 2 de este precepto establece que *“las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones”*, lo que también se recoge en la cláusula 16.4 del PCAP.

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeak

Por su parte el artículo 157.1 LCSP establece para



honako hau xedatzen du 157.1 artikuluan prozedura irekiaren kasuan: *“Kontratazio-mahaiak 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatuko du, zeina lizitatzailleek proposamena biltzen duenaz beste gutun edo artxibo elektronikoko batean aurkeztu beharko baitute”*.

Azkenik, 146. artikuluan beste hau dio: *“Nolanahi ere, eskaintzak formulak aplikatu hutsez kuantifika daitezkeen irizpideen arabera ebaluatzeko, lehenbizi, bestelako irizpideen arabera ebaluatuko dira, eta ebaluazio horren berri idatziz jasoko da”*.

ZORTZIGARRENA.- Kontratuaren legea baldintza agiriak direla aitortzen duten doktrina eta jurisprudentiaren arabera, eta goian aipatutako SPKLko 139. artikuluekin bat eginda, AKPAko 19. eta 21. klausulek zehaztasun osoz adierazi zuten nola aurkeztu behar ziren proposamenak.

Kasu honetan, errekurtsojartzaileak BAT zk. gutun-azalean sartutako KAEB agirian adierazi zituen solaskide teknikoaren tituluak, baldintza agirietan eskatu bezala. Baina, gainera, erantsi zuen zein lekutan eta zenbat denboran bete zituen adierazitako zerbitzuak, nahiz eta informazio hori HIRU zk. gutun-azalean jaso beharrekoa izan.

Izan ere, une horretan jakin behar ez zen informazioa eman, balio judizioa kutsatzeko arrisku potentziala eragin zezakeen: solaskide teknikoaren esperientzia BAT zk. gutun-azalean emanda, kalkula zitezkeen adjudikazio irizpide horren arabera enpresa errekurtsojartzaileari legozkiokeen puntuak, HIRU zk. fitxategia ireki aurretik.

Errekurtsojartzailearen jarduketa, hain zuzen ere, izan denez kontratazio organoari aurreratzea solaskide teknikoaren esperientziari buruzko informazio ebaluagarria, ulertu behar da jokabide horrek berak urratu duela proposamenen izaera sekretua eta, ondorioz, Kontratazio Mahaiak erabakitako ez-onartzea zuzenbidearen arabera da.

BEDERATZIGARRENA.- Errekurtsojartzaileak dio proposamen bana aurkeztu zuen aurreko bi

el procedimiento abierto, respecto al examen de las proposiciones, que *“la Mesa de contratación calificará la documentación a que se refiere el artículo 140, que deberá presentarse por los licitadores en sobre o archivo electrónico distinto al que contenga la proposición”*.

Finalmente, dispone el artículo 146 que *“en todo caso, la evaluación de las ofertas conforme a los criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas se realizará tras efectuar previamente las de aquellos otros criterios en que no concurra esta circunstancia, dejándose constancia documental”*.

OCTAVO.- De acuerdo con la reiterada doctrina y jurisprudencia que sostiene que los pliegos son la ley del contrato, y en consonancia con el transcrito artículo 139 LCSP, tanto la cláusula 19 como la 21 del PCAP determinaron con exactitud la forma en que se debían presentar las proposiciones.

En este caso, la recurrente indicó en el DEUC, incluido en el Sobre nº UNO, los títulos de la interlocutora técnica, tal como lo exigen los pliegos. Pero añadió los establecimientos y períodos de tiempo en los que había prestado sus servicios, cuando dicha información debía haberse incluido en el Sobre nº TRES.

Y es que revelando información que no debía saberse en ese momento podría provocar un riesgo potencial de contaminación del juicio de valor: al revelar la experiencia de la interlocutora técnica en el Sobre nº UNO, podían calcularse los puntos que le corresponderían a la sociedad recurrente en virtud de este criterio de adjudicación antes de la apertura del Archivo nº TRES.

Dado que la actuación de la recurrente consistió precisamente en anticipar al órgano de contratación la información evaluable sobre la experiencia de la interlocutora técnica, ha de entenderse que es su propia conducta la que ha vulnerado el carácter secreto de las proposiciones, por lo que la inadmisión acordada por la Mesa de Contratación fue ajustada a Derecho.

NOVENO.- Alega la recurrente que en dos licitaciones anteriores en las que presentó sendas



lizitazioetan ere BAT zk. gutun-azalean zehaztu zuela HIRU zk. gutun-azalean solaskideari buruz eskatutako informazioa, eta, hala ere, bere eskaintza ez zela baztertua izan eta ez zuela jaso inolako jakinarazpenik proposamenaren desegokitasunaz ohartarazteko.

Alabaina, kontratatzaileak adierazten duenez, kasu horiek ez dute aurrekaria ezartzen. Lehenengo kasuan, ez zen gutun-azalik ireki eta, beraz, Kontratazio Mahaiak ez zuen inolako dokumenturik kalifikatu, baldintza agirien aurkako kontratazio alorreko errekurtso berezia aurkeztu zelako. Auzitegi honek eten egin zuen kontratazio prozedura eta, aurrerago, deuseztatu egin zituen baldintza agiriak.

Bigarren kasua beste kontratazio organo bati dagokiona da (Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua), eta, kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeke, baldintza agirietan ez da eskatzen solaskideak titulu jakin bat izatea, baizik eta azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusienak zerrendatzea. Beraz, kontratazio mahai desberdin batek kaudimen baldintza diferenteen aurrean hartutako erabakiak ezin dira inola ere lotesleak izan, eta ezin dute ere aurrekaririk ezarri kasu honetan.

HAMARGARRENA.- Aurrekoa argituta, aztertu beharko da Kontratazio Mahaiak errekurtsojartzaileari epe bat eman behar ote zion, haren ustez eskaintzaren aurkezpenean egindako akats bat zena zuzentzeko.

2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 81. artikulua, dokumentazioaren kalifikazioari eta akats edo hutsune konpongarriei buruzkoak, hau dio:

"1. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko, kontratazio mahaia eratu ondoren, lehendakariak aginduko du irekitzeko Legeak 79.2 artikuluan agintzen duen dokumentazioa jasotzen duten gutun-azalak, eta idazkariak egiaztatuko du bakoitzean dauden dokumentuen zerrenda.

proposiciones también detalló en el Sobre nº UNO la información requerida en el Sobre nº TRES respecto a la persona interlocutora, a pesar de lo cual su oferta no fue rechazada, ni recibió ninguna notificación de inadecuación.

Pues bien, tal como señala la entidad contratante, ninguno de dichos casos sirve de precedente. En el primero no se abrió ningún sobre, ni, por tanto, la Mesa de Contratación calificó documento alguno, porque tras la interposición de un recurso especial en materia de contratación contra los pliegos, este Tribunal suspendió el procedimiento de contratación y más tarde estimó el recurso y anuló los pliegos.

El segundo precedente que invoca corresponde a un órgano de contratación distinto (Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa) y en aquel caso los pliegos no exigían para acreditar la solvencia técnica o profesional un título determinado de la persona interlocutora, sino solo una relación de los principales servicios realizados en los últimos tres años, por lo que las decisiones adoptadas por una Mesa de Contratación distinta ante unas exigencias de solvencia también distintas en modo alguno pueden vincular ni servir de precedente en este caso.

DÉCIMO.- Sentado lo anterior habrá que analizar si la Mesa de Contratación debió haber concedido a la recurrente un plazo para subsanar lo que ésta considera un error en la presentación de la oferta.

El artículo 81 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, relativo a la calificación de la documentación y defectos u omisiones subsanables, establece lo siguiente:

"1. A los efectos de la calificación de la documentación presentada, previa la constitución de la mesa de contratación, el Presidente ordenará la apertura de los sobres que contengan la documentación a que se refiere el artículo 79.2 de la Ley, y el Secretario certificará la



relación de documentos que figuren en cada uno de ellos.

2. Mahaiak ikusiko balu badirela akats edo hutsune konpongarriak aurkeztutako dokumentazioan, hitzez esango die interesdunei. Aurrekoa gorabehera, horiek guztiak publiko egin beharko dira kontratazio organoaren edo, bestela, baldintza agirietan ezartzen denaren iragarkien bidez, eta hiru egun balioduneko epea emango da gehienez, lizitatuak zuzendu eta konpon ditzaten kontratazio mahaiaren aurrean”.

Akatsak eta hutsuneak zuzentzeko aukera orobat aurreikusten da 817/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak buruzko 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzekoak, 27.1 artikuluan Lege horren 130.1 artikulua aipagai duen dokumentazioari dagokionez dion horretan.

Alabaina, arau horiek dira, alde aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, proposamenekin batera aurkeztu behar den dokumentazioan antzeman daitezkeen akats edo hutsune konpongarrien ingurukoak; hau da, enpresaburuaren nortasun juridikoaren, ordezkariaren edo kaudimenaren ezaugarriak egiaztatzeko diren dokumentuen ingurukoak.

Baina ezin da ezer zuzendu, formulen bidez ebaluagarriak diren irizpideei buruzko informazioa BAT zk. gutun-azalean sartzen bada, HIRU zk. gutun-azalean sartu beharrez.

Zentzu horretan, errekurtsojartzaileak aipatzen duen Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren ebazpena beste egoera bati dagokio. Kasu hartan, lizitatuak bi gutun-azal aurkeztu zituen lizitazio-lote bakoitzeko, eta gutun-azal horien barruan zeuden, itxita eta gutun-azal banatan, 1. gutun-azala (gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa) eta 3. gutun-azala (ponderazio automatikoa duten adjudikazio irizpideei buruzko dokumentazioa).

Kasu honetan, aldiz, HIRU zk. gutun-azalean joan behar zuen informazioaren zati bat BAT zk. gutun-azalean zihoan, eta gutun-azala irekitzean jakin behar ez zen informazioa eman zen.

2. Si la mesa observase defectos u omisiones subsanables en la documentación presentada, lo comunicará verbalmente a los interesados. Sin perjuicio de lo anterior, las circunstancias reseñadas deberán hacerse públicas a través de anuncios del órgano de contratación o, en su caso, del que se fije en el pliego, concediéndose un plazo no superior a tres días hábiles para que los licitadores los corrijan o subsanen ante la propia mesa de contratación.”.

La posibilidad de subsanar las omisiones y errores se prevé también en el artículo 27.1 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, en relación con la documentación administrativa a que se refería el artículo 130.1 de la citada Ley.

Ahora bien, tales preceptos se refieren exclusivamente a los defectos u omisiones subsanables que puedan apreciarse en la documentación que debe acompañarse a las proposiciones al objeto de acreditar el cumplimiento de los requisitos previos; es decir, aquellos destinados a acreditar las condiciones relativas a la personalidad jurídica del empresario, su representación o solvencia, entre otras.

Pero la subsanación no es posible cuando en el Sobre nº UNO se introduce información relativa a los criterios evaluables mediante fórmulas, que debía haberse incluido en el Sobre nº TRES.

En este sentido, la resolución del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales invocada por la recurrente se refiere a un supuesto diferente. En aquel caso, el licitador presentó dos sobres, uno para cada uno de los lotes a los que licitaba, sobres que a su vez contenían en su interior, de forma cerrada e individualizada, los sobres nº 1 (documentación acreditativa de la capacidad y solvencia) y nº 3 (documentación relativa a criterios de adjudicación cuya ponderación es automática).

En el presente caso, en cambio, parte de la información que debía ir en el sobre nº TRES iba en el sobre nº UNO, revelando información que no debía conocerse en el momento de su apertura.



HAMAIKAGARRENA.- Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegiak errekurtsogileari isun bat jartzea ekar dezakeena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

Ezestea SERVICIOS SOCIALES AITA MENNI SL enpresak aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

UNDÉCIMO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por SERVICIOS SOCIALES AITA MENNI SL.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2019ko uztailaren 17a. / San Sebastián, 17 de julio de 2019.